



OLABIDE IKASTOLA

GURE GAUZAK

19

Ikastolako aldizkaria 2002ko abendua



BERRIKUNTZAK IKASTOLAKO ALDIZKARIAN NOVEDADES EN LA REVISTA DE LA IKASTOLA

Gure Gauzak ikastolako aldizkariari ere iritsi zaio berrikuntzak egiteko garaia. Ikusiaz batera konturatuko zineten irudia aldatu egin dela; egia da. Izan ere, maketazio aldaketak egin ditugu, eta bestelako itxura bat hartu du. Onerako izango ahal da! Ea, bada, zuen gustukoa den.

Aldizkariaren koordinazio lanetan ere izan da aldaketarik: azken urteotan Marije Gonzalez lankidea arduratu da zuen lanak garaiz egin zenitzaten, erredakzio lanak zuzen egon zitezen, gaiak ere berak proposatu izan ditu, behar izan dugunean laguntza eskaini digu; azken finean, aldizkariak aurrera egin zezan arduratu da. Marijek ez daki ezetzik ematen, baina nahikoa lan ere badu bestela ere; horrexegatik, zama arintzea iruditu zaigu egokiena, eta ardura honetatik libratu dugu. Ondo doakizula egin behar-reko lanetan, eta Ikastolako guztien partez, gure eskerrik beroena. Mila esker.

Miren Barinaga izango da, aurrerantzean, aldizkariaren koordinatzailea. Miren lizentziaduna da, filologian, eta DBHko irakasle ere bada. Aldizkariaren arduraz gain, irratia martxan jartzeko erantzukizuna ere izango du bere gain. Horratx! Eutsi goiari, Miren!

Berrikuntzak direla-eta, familia guztiak gonbidatu nahi zaituztegu, zuen ustez aldizkarian argitaratzeko interesgarriak diren gaiak proposatu diezazkiozuen koordinatzaile berriari (telefonoa: 945-150664; e-mail: mbarinaga@olabide.com). Orain arte ez da ohikoa izan gurasoek aldizkarian parte hartzea, baina zuen iritzia ere jaso nahiko genuke. Eskerrik asko.

También a nuestra revista Gure Gauzak le ha llegado la hora de hacer unos cambios. A primera vista os habréis dado cuenta de que algo ha cambiado en su imagen; y es verdad, las novedades introducidas en el ámbito de la maquetación le dan otro aire. Esperamos que sean para bien y que os guste.

Hay también cambio en la responsabilidad de coordinación de la revista. Estos últimos años, ha sido Marije Gonzalez la responsable de animarnos a todos y todas para que cumpliéramos con nuestros compromisos de redacción, de proponernos los temas más interesantes, de echarnos una mano a la hora de escribir algo, de todo, para que la revista saliera adelante. Como no sabe decir que no ya tiene varios compromisos más, y nosotros en compensación, le hemos liberado de éste. Suerte Marije en los nuevos cometidos y gracias de todo corazón en nombre de toda la ikastola. Mila esker.

La nueva responsable de coordinación de la revista es Miren Barinaga, Licenciada en Filología y profesora de la ESO en la ikastola. Además de esta nueva responsabilidad también se va a encargar de poner en marcha el proyecto de la radio. Ahí es nada. ¡Animo Miren!

Para terminar con el capítulo de las novedades, quisiera invitaros a todas las familias, que os dirijáis a la nueva coordinadora con temas que consideréis de interés para la ikastola, para su publicación en la revista (telefono: 945-150664; e-mail: mbarinaga@olabide.com). No ha sido habitual la participación de los padres y de las madres en este ámbito y nos gustaría recoger vuestra aportación. Eskerrik asko.

Iñaki Zubeldia

Lerro hauekin, ale honetan parte hartu duzuen emandako laguntza eskertu nahi dizuet. Barkatu presaren presaz ibiltzeagatik eta alameda emateagatik testuak eta argazkiak lortzeko momentuan. Azkenean, zuei esker adizkaria aterata da. Bide batez, irakurle guztiei (irakasleak, ikasleak, gurasoak, eta langile guztiei) datozen zenbakietan parte hartzera animatu nahi zaituztet.

Honekin batera, gertu ditugun datak direla eta ZORIONAK eta URTE BERRION!

GURE GAUZAK zuen gustukoa izatea espero dugu!

Udaberrian berriro elkarrekin. MILA ESKER!

Con estas líneas me gustaría agradecer a todos los que han participado en este número, la ayuda que me han prestado. Disculpad las prisas y la "pelmada" que os he dado a la hora de recoger los textos y las fotos. Finalmente, la revista ha podido salir gracias a vosotros/as.

Al mismo tiempo, quiero animar a todos los lectores (profesores, alumno /as, padres y madres, todos/as los/as trabajadores/as de la ikastola) a que participéis en los próximos números.

Aprovecho la ocasión, y con motivo de las fechas que se aproximan:: ZORIONAK eta URTE BERRION!

¡Esperamos que **GURE GAUZAK** sea de vuestro agrado!

Nos vemos en primavera. MILA ESKER!

Miren Barinaga

Irune Mtz. de Santosek, batxilergoko ikasleak, aurten bizi izan du bere udarik onena, dudarik gabe. Ruta Quetzal Espedizioan parte hartzeko aukera ezin hobea izan du. Hona hemen esperientzia honen laburpena.

Pasatu dudan udaran pentsatzen dudan bakoitzean, aurpegia piztu egiten zait eta ez da gutxiagorako, Ruta Quetzalen bizi diren esperientziak eta esperientziak ahaztezinak baitira.

43 lurraldetako lagunak egin ditut. Guztira 350 bat gazte egon gara goiz eta egunez elkarrekin bizitzen eta guztia elkarbanatzen, goseak eta nekeak gure bizitza menperatzen zuten bakoitzean. Esperientzia polita baina gogorra, guztia esan beharra dago, hela ere, ez nuke beste gauza baten truke aldatuko. Panaman egon ginenean, Isla Bananan eta Isla Zorran kanpatu, Gatun lakuan kokatzen den paisaia mirengarrian. Bertan, indigenekin sukaldatu, ehizatu eta abestu ondoren, oizeano barean bainatu ginen. Panamako kanalaren ondoren, euskaldunei omanaldi bat eskaini genien, honen erailketan lagundu zutelako. Txakoli edanez eta abestuz jaia ospatu genuen. Costa Rican, berriz, Caribeko hondartza paradisiaketa eman genituen gauak eta Poás sumendira igo ginen bertako lagunak ikusteko. Rafting-a eta canopy (tirolinsa oihanean) praktikatu genituen. Esperientziarik txarrenetako bat oihanaren zeharkatzea izan zen. Guztiok lur jota bukatu genuen zazpi orduz ibili ondoren edari eta janaririk gabe.

Espanara iristean, Madril (bertan erregea ezagutu genuen), Castilla-La Mancha, Castilla -León, Extremadura eta Andaluzian zehar ibili ginen. Julio Iglesiasen kontzertu batean ere abestu genuen eta honi adarra jotzeko aukera izan nuen.

Mila gauza ezberdin gertatu zaizkigu eta ondo pentsatuz gero, konturatzen naiz izan dudan zorteaz espedizio honetan parte hartzerakoa. Bidaia bukatu egin da baina egin ditudan lagunak eta bizi ditudan esperientziak betirako geldituko dira nirekin.



Irune Mtz. de Santos, alumna de bachiller, ha conseguido formar parte de la Expedición Ruta Quetzal. Su trabajo fue elegido entre el de numerosos candidatos. Pero tras esta dura selección ha tenido la oportunidad de vivir una experiencia que no olvidará jamás. Desde estas líneas anima a todos/as a participar en este atractivo proyecto.

OLABIDE KIROL ELKARTEA

Hasteko esan beharra daukagu aurten Maider Garmendia koordinatzaile postua utzi egin duela eta eskerrak ematen dizkiogu prestatutako lan arduratsuegatik hainbeste urtetan zehar, zorte on izan eta mila esker denagatik.

Beste arlo batzuetaz esan beharra daukagu aurtengo urtean ikastolak eman duen irudi aldaketa Urgatzi kirol klubera ere heldu dela. Urgatzi deitzetik Olabide Kirol Elkarte deitzera pasatu gara. Gure ekipaiek ere aldaketa hau somatu dute.

Beste alde batetatik esan beharra dago kirola egiteko gogoak gero eta handiagoak direla ikastola honetan. Aurten 20 kirol ekintza ezberdin daude Olabide Kirol Elkartean. Partaide kopurua 724 pertsonetatik 779 pertsonetara pasatu egin da. Saskibaloia eta xakean parte hartzaile nabari gehiago ditugu. Kirol Hasiera LH2an eskaini da lehenengo aldiz eta erantzun bikaina izan du.

Esan beharra dago ere eguerdian, bazkaldu ostean ekintza berri bat hasi dela orain dela ez gehiegi, Esgrima hain zuzen ere. Ekintza honek arrera oso ona izan du eta horren lekuko jadanik apuntatu diren 21 pertsona.

Besterik gabe, beste bat arte;

Para empezar tenemos que informaros que la anterior coordinadora Maider Garmendia ha dejado el puesto y le damos mil gracias por el trabajo que con tanto mimo realizó durante varios años.

Comentando otros temas, tenemos que puntualizar que el cambio de la ikastola Olabide ha llegado a Urgatzi Kirol Klub. El club deportivo ha pasado de llamarse Urgatzi Kirol Klub a Olabide Kirol Elkarte. Este cambio de imagen ha afectado a nuestros equipajes también.

Por otro lado es visible que la afición por los deportes está creciendo en nuestra ikastola. Este año contamos con 20 actividades deportivas extraescolares. El número de participantes ha aumentado de las 724 personas a las 779. En actividades como baloncesto y ajedrez tenemos un aumento significativo. Por primera vez se ha ofrecido la actividad de Kirol Hasiera en 2º de E.P., y ha sido todo un éxito.

Para finalizar tenemos que añadir que este año ha empezado a rodar otra actividad más, esgrima. Se suele realizar los mediodías, en horario de comedor. Este maravilloso deporte ha tenido una aceptación grande entre los alumno/as, prueba de esto son los 21 chicos/as que se han apuntado hasta la fecha.

Sin otro particular, hasta otra

WURTZEN-GASTEIZ 2002

Pasa den urrian bisita berezi bat izan genuen ikastolan. Alemaniako lagunak etorri ziren gure ikasleek egindako bisita bueltatzeko. Oso esperientzia baliagarria izan zen eta honekin guztiok ikasi dugu, batez ere ikasleek.

Gure ikastola ezagutzeaz gain Euskal Herriko zenbait leku bisitatzeko aukera izan zuten: Donostia, Bilbo, Mundaka, Gernika, Errioxa. Madrilen ere, bi egun eman zituzten.

Honen berri izateko, hona hemen ikasle alemaniar baten eskutitza eta Olabideko ikasle baten inpresioa.

Honekin batera Zorioneri eskertu nahi diogu egin izan duen eta egiten ari den lan guztia.

No me arrepiento de haber venido a Vitoria, al contrario, me alegro mucho, porque creo que el intercambio me ha ayudado mucho en el aprendizaje del español. Me parece que gracias a él ahora me atrevo a hablar en este idioma, cosa que antes no hacía.

Me he entendido muy bien con toda la gente y mi familia era muy amable, ha hecho muchas cosas por mí.

A pesar de que el programa de actividades fuera demasiado apretado y que alguna de las visitas a museos no fuera demasiado interesante, (tuvimos demasiado tiempo para visitar el museo de El Prado), el Museo de Ciencias Naturales y el Guggenheim me han encantado. Además, las playas de Mundaka y San Sebastián son también preciosas.

No obstante me da un poco de pena no haber podido estar más tiempo y haber hecho más actividades con nuestros estudiantes anfitriones. Recomendaría a todos venir a Vitoria y nunca olvidaré el tiempo que he pasado aquí.

Itzulpena: Leire Alonso

Sajoniako ikasle alemaniarren etorreraren ostean, 2001eko irailean alemaniar gazte batzuekin hasitako harremana sendotzeko aukera izan genuen hemen, Gasteizen. Alde batetik, ikasketak eta bestetik, ikastolak jarritako zailtasunak (azterketak), ez ziren nahikoa izan, gutako hainbat ikasle alemaniarrekin irtenaldi eta une atseginak igaro genitzan. Baina gauza atsegin guztiei bezalaxe honi ere iritsi zitzaion amaiera duela hilabete Wurzen aldera bueltan abiatu zirenean eta orduan hasi ginen sumatzen beraien falta, beraien barreak, eta nola ez, beraien atzerapenak "making-up" dela eta.

Laburbilduz, azterketek eta egoerak lagunduz gero, berriro ere errepikatuko genuke, oso esperientzia positiboa izan baitzen.

Aritz Arrizabalaga



BIZITZA ABERASTU, DENA ELKARBANATUZ

Muskoa Sanchezek, H.H irakasleak, Chilen eman du uda laguntza proiektu batean parte hartuz. Ikastolara heltzean gure ikasleei bere esperientziaren berri eman izan die eta hauengandik oso erantzun positiboa jaso izan du. Agian, honekin, bai ikasleek bai guk geuk, hain urrun eta hain hurbil ditugun arazoez jabetuko gara. Hona hemen bere hitzak

Pentsatzen dugu denok dakigula beste herrialde batzuetako errealtatea, komunikabideetan ikusten eta entzuten dugunagatik. Baina, heltzen da momentu bat, errealtate hori esperientzia pertsonala bihurtu nahi izana. Hori da niri gertatu zitzaidana eta uda Chilen igaro nuen.

Euskal Herriko escolapioak Chilen duten proiektua ezagutzera eta parte hartzera joan nintzen. Horrelako proiektutara joaten garenean, laguntzeko irrikitan egoten gara, edozein gauzetan laguntzeko prest. Baina, zoritxarrez hilabete pare batean ezin da gauza handirik egin, dena den jendea, kultura eta bizimodu ezberdin bat ezagutu dut eta garrantzitsuena dena, jendearekin elkarbanatu nuen. Zer elkarbanatu? Dena, janaria, denbora, lana, farreak, negarrak...

Mendian, elektrizitaterik gabe, janari eskasarekin, egurrezko etxeetan, lokatzeko errepideetan,... baina laguntasun eta maitasun handia ematen duen jendearekin igaro nuen uda.

Esperientzia honek bizitza antolatzeke modua aldatu dit. Gure bizitzeko moduan, edozein arazo, drama bihurtzen dugu eta besteekin egoteko eta elkarbanatzeko denborarik ez dugu aurkitzen. Daukaguna baloratzen, bizitza lasaitasunez hartzen eta ondo aprobetxatzen erakusten dute.

Eskerrak eman behar diet D.B.H 1go mailako ikasleei, Chileko gazteei bidalitako eskutitzengatik, eta espero dut elkarri idazten jarraituko dutela. Eskertu behar diet ere L.H. ko hainbat ikasleei, Chilen eskuturrekoak egiteko tailer bat antolatzeke materiala eman baitzidaten.

Besterik gabe, horrelako esperientzia bat izatea gomendatzen dizuet, bizitzari ematen dion aberastasuna ezerk ezin baitu eman.

Muskoa Sánchez

Muskoa Sánchez, profesora de HH, ha tomado parte en un proyecto de ayuda en Chile. Al llegar a la ikastola ha querido compartirlo con los alumnos/as, y éstos le han respondido de una forma muy positiva. Quizá con esta experiencia, tanto los alumno/as como nosotros mismos tomemos conciencia de los problemas que tan lejos o tan cerca existen.



HAUR ETA LEHEN HEZKUNTZA

HH3 ETA HH4 MAILAKO IKASLEEN KURTSO HASIERA

Aurten ere ikasturte berri bati hasiera eman genion, eta OLABIDE Ikastolan txikiak direnak lehenengo aldiz ikusi ahal izan genituen ikasgeletan eta jolastokian. Ohiko negar batzuk gertatu baziren ere, laster egokitu ziren gune berrietara. Ikastola ezagutu, andereño eta maisuekin hainbat ekintza burutu, eta lagun berriekin jostatu izan dira egiteko nagusienak. Haurrentzat gatazka txikia sortzen da etxeko giroa utzi eta ikastolako egoera berrietara egokitu beharra somatzen duenean, gehien bat etxean arreta gunea bera delako eta Ikastolan arreta hori elkarbanatzen ikasi behar duelako, gizartaratze edo sozializazioaren garapenerako lehen urratsak izanik.

HH5 eta HH6 MAILAKO IKASLEAK ZINEMARA

Azaroak 11, San Martin eguna, bide batez ospatzeko eta bestalde Euskara gure ikasleengan bultzatzeko asmoz, aurreko astean AHOTSU (euskara bultzatzeko maskota) denak opari gisa, zinemara filma bat ikustera joateko sarrerak oparitu zizkien HH5 eta HH6 mailako ikasle eta maisu andereñoi, ekintza burutu genuen. "Antxeta eta Katua" izenburupean haurrek laguntasuna, elkartasuna eta ingurugiroaren babesa euskaraz lantzeko parada izan zuten, filmaren mezua aberasgarri bilakatu zelarik gure ikasleentzat.

AHOTSUREN ETORRERA HAUR HEZKUNTZARA

Azaroaren 6an, Haur hezkuntzako pasabide eta gelatan ezusteko bisita izan genuen, AHOTSU, Olabideko maskota dena euskararen motibaziorako egindako lanagatik gu animatzera etorri zen, bestalde aurten ikasle berriak ditugun horiei bere burua aurkezteko ere aukera izan zuen Ahotsu berak.

HH6 MAILAKO IKASLEAK ERRIOXARA IRTEERA

Urriaren 3an, HH6 mailako ikasleak urtero bezala Errioxara irteera burutu zuten, aurten Baños de Ebro herrira abiatu ziren Patxi Antonek gonbidatuta, bertan Varal eta Berzal bodegak bisitatzeko aukera izan genuen, udazkenaren ezaugarriak ikusteaz gain mahats biltze eta ardo egite prozesuen lehen urratsak ikusi ondoren Labastida herrirantz abiatu ginen bazkaltzera. Mila esker Varal eta Berzal bodegetako lagunei.

LH2, LH4 ETA LH6. MAILAKO IKASLEAK BARRIAN.

2. 4. eta 6. mailako ikasleak Barrian hiru egun pasa dituzte. Jolasen bitartez, Araba hobeto ezagutzeko aukera izan dute. Eta honekin batera, euskaraz bizitzeaz gain, ederto pasatu dute.

Los alumnos/as de 2º, 4º y 6º de primaria han pasado tres días en Barria. Allí han tenido la oportunidad de conocer mejor Araba por medio de juegos. Y además, se lo han pasado de maravilla viviendo esta experiencia en euskara.

INICIO DE CURSO DE LOS ALUMNOS/AS DE HH3 Y HH4

Comenzó un nuevo curso en Ikastola OLABIDE, y pudimos ver a los más pequeños corriendo por los pasillos, si bien hubo se escucharon algunos lloros la adaptación de todos ellos fue estupenda y pronto les vimos jugando en el recreo y conociendo el nuevo entorno con las andereños y maisus. Para los pequeños es un periodo de conflicto ya que pasan de ser el centro de atención en sus respectivas familias, para pasar a compartir dicha atención entre el resto de compañeros/as de clase dando comienzo el proceso del desarrollo de la socialización

¡LOS ALUMNOS/AS DE HH5 Y HH6 AL CINE!

El lunes 11 de noviembre día de San Martín los alumnos/as de 5º y 6º de Educación Infantil fuimos al cine a ver la película "La Gaviota y el Gato", la invitación a esta actividad nos la proporciono AHOTSU (mascota de la Ikastola para la potenciación y motivación del euskara), que una semana antes nos había visitado. Bajo este título los alumnos/as pudieron trabajar valores como la tolerancia y el respeto al medio ambiente.

AHOTSU LLEGA A INFANTIL

El miércoles, 6 de noviembre tuvimos una inesperada visita en las clases de Educación infantil, AHOTSU la mascota encargada de motivar a nuestros/as alumnos/as en la utilización del euskara nos vino a visitar. Nos felicitó por el trabajo realizado animándonos a continuar de la misma manera y por otra parte tuvo la oportunidad de presentarse ante los más pequeños que este septiembre comenzaron en la Ikastola

SALIDA A LA RIOJA DE LOS ALUMNOS/AS DE HH6

El pasado 3 de octubre los alumnos/as de 6º de Educación Infantil se desplazaron hasta la localidad riojana de Baños de Ebro, invitados por Patxi Antón. Visitamos las bodegas de Varal Y Berzal y además de las características del otoño pudimos ver los primeros pasos del proceso de vendimia y elaboración del vino.





DBH ETA BATXILER

DBH 1. ANTZERKIRA

Ikastolako DBH 1 mailako ikasleak, Lengua eta Literatura mintegiak antolatuta, antzerkira joan dira azaroan. Cómicos de la Lengua izenburuarekin, antzezlan baten barruko antolaketa hurbiletik ezagutzeko aukera izan zuten, entsaio baten antolaketa, alegia. Ondo pasatu zuten, baita ondo portatu ere. Agian, hau dela eta, gure ikasleen artean eskenaren zirrara sortzen da.

DBH 3 BUTROI-URDULIZ

DBH 3 mailakoek eta euren tutoreek egun bateko txango dibertigarria egin zuten elkarren arteko harremanak sendotzeko eta ikasturte berria ondo hasteko asmoz. Aukeratutako lekua Bizkaia aldea izan zen, Butroi eta Urduliz, hain zuzen ere. Bertan kirol ezberdinak praktikatzeko aukera izan zuten; piragua, arku jaurtiketa, rapel eta tirolina. Ondo pasatu zuten elkarrekin, baita barre handiak bota ere, bereziki, irakasle guztiak uretara erori zirenean. Hau jaia hau!



DBH 4. Bio-Geo. URDAIBAI

DBH 4. mailako ikasleek urrian, Natur Zientzia mintegiak ikasturte honetarako prestatu dituen ekintzen programazioaren barruan, txango interesgarri bat egin zuten. Urdaibaiko "Basondo Fundazioa" ra abiatu egin ziren bertako landaretza eta fauna hobeto ezagutzeko asmoz. Animalia exotikoak eta ezohikoak ikusteko aukera izan zuten, eta noski giroaz ere disfrutatu zuten.

1º ESO. AL TEATRO

Los alumnos/as de 1º de la ESO, acudieron al teatro en noviembre, dentro de las actividades organizadas por el departamento de Lengua y Literatura. Con el título Cómicos de la Lengua, tuvieron la oportunidad de conocer desde dentro el funcionamiento de una obra de teatro, más concretamente, el ensayo de una compañía. Disfrutaron y se portaron magníficamente. Quizá esto sirva para alimentar el gusanillo de la interpretación en nuestro alumnado

3º ESO. BUTRON-URDULIZ

Los alumnos/as de 3º de ESO y sus tutores prepararon una divertida salida para lograr un mayor grado de relación personal y empezar el nuevo curso. El lugar elegido fue Bizkaia, más concretamente Butrón y Urduliz. Aquí tuvieron oportunidad de practicar distintos deportes; piragua, tiro con arco, rapel y tirolina. Lo pasaron fenomenal juntos, y rieron de lo lindo, sobre todo cuando todos los profesores cayeron al agua. ¡Vaya fiesta!



4º ESO. URDAIBAI

Los alumnos-as de 4º de la ESO en octubre, dentro de la programación de actividades del departamento de Naturales, realizaron una interesante visita a la "Fundación Basondo" de Urdaibai. El objetivo era conocer mejor la fauna y la flora autóctona. También tuvieron la oportunidad de conocer otros animales exóticos y, cómo no, de disfrutar del ambiente.

DBH 2A AUBIXARA!

Gure ikasleen artean euskararen erabilera bultzatzeko kanpaina dela eta, DBH 2A ko ikasleak Aubixara joan dira eta bertan 4 egun emanaz, euskaldun giro batean disfrutatu egin dute. Hona hemen ikasle batek jasotako inpresioa:

Aurtengo udazkenean DBH 2A-ko neska-mutilak Aubixako Euskal giotze Barnetegira (Elgoibar) joan ziren. Aubixara joatearen arrazoia zen euskara gehiago erabiltzearena batik bat, baina honen parean ere bazegoen ondo pasatzearena. Oso ondo antolaturik zegoen barnetegia; maketa-tailerak, zinema eta antzerki-tailerra, musika saioak, lehiaketak, ping-pong eta futbolinoko mahaiak, futbol eta saskibaloiko kantzak baitzeuden. Ondo pasatzea ez zen zaila. Egonaldia lau egun iraun zuen, astelehenetik ostegunera.

ESKERRAK ematekoa da ere hango begiraleek gujan jarritako arreta eta ikastolako Amaia Prior, Ainhoa Glez. de Galdeano eta Itziar Bediak gurekin joateko egin zuten ahaleginagatik. **ESKERRIK ASKO!!**

Inazio Sanz
DBH 2A



Aitor Arana idazlea ikastolan

Duela aste batzuk, Aitor Arana gure artean egon zen DBH. 4. mailako ikasleek irakurritako liburu baten berri emateko, *Ipuin Entzulea*. Legazpin jaio eta hezitako idazle honek, 17 urterekin eman zion hasiera bere zaletasun sutsuenari.

Ikastolara egindako bisita aprobetxatuz, hitzaldira hurbildu ginen berarekin hitz egiteko.

Zergatik hasi zinen idazten?

Gehien bat Euskal Literaturari lagundu nahian. Hasiera batean, euskal liburuak irakurtzen hasi nintzen, ondoren gustatu eta azkenik nik ere zerbait egin behar nuela ikusi nuen.

Eta txikitatik atsegin zenuen idaztea?

Egia esanda ez. Ni ikasle nahiko txarra nintzen eta 14 urterekin ikasteari utzi nion. Hurrengo 3 urtetan, pixkanaka-pixkanaka nire kontura hasi nintzen. Ikusten denez denbora tarte horretan gauzak ez nituen batera garbi. Nire irakasleak (niretzat andereño Nekane) marrazkigilea izan nintekeela esan ohi zidan baina inoiz ez zukeen pentsatuko idazlea izango nintzenik, nik argitaraturiko liburu bat ikusi arte.

Zein gairen inguruan idazten duzu? Eta zeintzuk izan dira arrakastatsuenak?

Denetik idazten dut: haurrentzako literatura, helduentzako literatura, ipuinak, asmatutakoak, egiazko datuetan oinarritutakoak..., hiztegiak, gramatikak, testu-liburuak, edota itzulpenak ere egin ditut.

Eta arrakastatsuen salduena baldin bada, abenturetakoak direla esango nuke eta izenburu bat esatekotan "Afrikako semea" esango nuke. Liburu honek 10 urtetan 11 edo 12 edizio izan baititu. Liburu pornoak ere idatzi ohi ditut eta jendea nahiko harritzen da baina nik naturaltasunez idazten ditut.

Leku edota material berezi bat behar duzu idazten hasteko?

Ez. Langelan, sukaldean... idatz dezaket. Badaude idazleak itsasoari begira idatzi behar dutela diotenak baina hori ez da nire kasua. Nik egin behar dudan gauza bakarra idatzi baino lehen izenburua era sinadura lehenengo orrian jartzea da, bestela ezin naiz idazten hasi. Mania bat da eta hori gabe ezin dut aurrera jarraitu. Gainera erlaxatzeko Cola-Cao bat hartzen dut askotan

Eta eguneko zein ordutan idazten duzu?

Ba... beharraren arabera. Lasai egonez gero, gauaz idazten dut, eskultore, marrazkilari eta abarrek egiten duten antzera. Gainera gustura

egonda ezin zara gelditu eragotzi ez dezakezun gauza bat da eta hori dela eta egun batean eseri eta jarraian idazten eman dudan ordu kopuru handiena, 8 ordutakoa dela esango nuke. Baina nik esaten dudan bezala "gustuko aldapan, nekerik ez". Niretzat atsegina da nekatuta oheratzea baina paper pila betekin.



Eta azkenik, zuk gaur aurkeztutako liburuaren arabeko galderen artean: Non oinarritu zinen *Ipuin entzulea* idazteko? Eta liburuko zien pertsonaiarekin identifikatzen zara?

Liburu bat idazten hasten naizenean nire bizipenak, ezagutzen dudan zerbait, nahi nukeen zerbait edo nire alderdi txarra ere jartzen saiatzen naiz. Baina garrantzitsuena irakurlegoa harrapatzea dela pentsatzen dut.

"Ipuin entzulea" idazteko Stephen King-ek idatzitako liburu batean oinarritu nintzen. Eta pertsonaia batekin identifikatzekotan Itziar(idazlea den pertsonaia nagusia) izatea gustatuko litzaidake. Eta neska izatea pentsatu nuen ni mutila izanda, nire lagunek beti mutilak pertsonaia moduan jartzen nituela esan zidatelako. Tartekatzekeo besterik ez da.

Ikus dezakezuenez, idazle aparta izateaz gain, pertsona atsegina ere bada, inolako oztoporik gabe guk egindako galdera guztiak erantzun baitzituen.

Hau guztia dela eta, hurrengo urtean berriro ere etortzea gustatuko litzaiquike, bere kontakizun miresgarriekin gu guztiok liluratzeko.

**Nagore Iriarte, Maitane Txabarri eta Nerea Orobiogoikoetxea
Batxiler 2. maila**

Betirako

Goizero bezala, lanerako bidea hartu nuen egun hotz eta ilun hartan. Kaleetan ez zen inor sumatzen, eta neure pausoak eta arnas hotsak besterik entzuten. Eguneroko monotonia horretan preso sentituz, mekanikoki egiten nituen nire gorputzeko mugimendu guztiak. Atzera so egin gabe. Ez atzera, ez inora, bidea buruz bainekien, begiak itxita ere egiteko gai nintzela pentsatuz. Baina egun hartan monotonia hori apurtu zuen gertakari batek nire bizitza betiko aldatu zuen. Aldatu edo apurtu? Nire pentsamenduetan murgildurik nengoela, errepidea gurutzatzeari ekin nion, baina ez nuen sekula ekintza hori burutu. Ziztu bizian zetorren kotxe batek monotonia hura, nire bizitza, alegia, lapurtu egin zidan. Denbora eten egin zen niretzako, eta geroztik nire erlojuak ordu bera erakusten dit. Ezin atzera ez aurrera egin. Lehen ez nuen atzera begiratu nahi, eta orain, ordea, ezin. Ezin ezer bukatu, ezer. Ezer konpondu, ezer. Ezer egin. Monotoniatik inpotenziara pasatuz, baina beti preso. Nire burua askatzeko gai izan ez nintzelako. Betirako preso.

Batxiler 1go mailako ikaslea